



FEM_ CHEĀK

EGIAZTATZE FEMINISTA
ZERRENDA BAT, ERABILERA
ESKULIBURUAREKIN





REAITORTZA - EZ MERKATARITZARAKO - PARTEKATU
BAIMEN BERAREN ARABERA 3.0. MATERIAL HAU LIBRE
KOPIATZEKO, BANATZEKO ETA JAKINARAZTEKO
BAIMENA EMATEN DA, BETIERE HAREN EGILEA
AIPATZEN BADA ETA MERKATARITZA
HELBURUETARAKO ERABILTZEN EZ BADA.
DOKUMENTUEN ALDAKETARIK EGITEN BADA, BESTE
ERA BATEKO DOKUMENTUAN ALDAKETARIK EGITEN
BADA, BESTE ERA BATEKO DOKUMENTUA SORTZEKO
EDO HORRETAN OINARRITUTA BESTE OBRA BAT
EGITEN BADA, HAU BEZALAKOA LIZENTZIA
ESKURATUTA BAINO EZIN DA BANATU . LIZENTZIA
OSOA: [HTTP://CREATIVECOMMONS.ORG/LICENSES/BY-
NC-SA/ES/EMAÚS](http://creativecommons.org/licenses/by-nc-sa/es/emaús)



KOORDINAZIOA: Asier Arcos eta Amaia Ibarrondo
ERREDAKZIOA: María Viadero (Mugarik Gabe)
LAN TALDEA: Asier Arcos, Amaia Ibarrondo, María Viadero.
LEGEZKO GORDAILUA: SS-125-2018
ITZULPENA: Idoia Larrañaga
DISEINUA ETA MAKETAZIOA: Iban Buján
Argitalpen hau doan deskargatzeko:
www.emaus.com/
<https://issuu.com/grupoemausfundacionsocial>
Babesten du:



HITZ- AURREA

Esku artean duzun tresna honek, Fem_Check, 2015 urtean hasi genuen prozesuaren amaiera osatzen du, orduan, Merkataritza justuaren eraldaketa eredu baten oinarritzko elementuak modu zientifiko, serio eta zehatzean lantzea proposatu genuen. Elementu hauek bateratu beharko lirateke, balore, printzipio eta portaera modu multzo bat partekatzean oinarritutako erlazio eta eragile-arteak inter-konexio modu ezberdinak ikustera emateko eta aztertzeke garaian. Balore, printzipio eta portaera modu hauek, “Merkataritza eta Kontsumo Eredu Justu eta Eraldatzaileak, tokiko eta global mailan” deiturikoa osatuko lukete.


Prozesuan hiru dokumentu garatu dira. Lehenengoa, jarraitu beharreko ereduaren gaineko ikerketa teoriko-praktikoa da. Hiru korrante teoriko-praktikoen oinarri teorikoetatik abiatuz –Elikadura Burujabetza, Bidezko Merkataritza eta Ekonomia Sozial eta Solidarioa- eta giza gaitasunean oinarritutako Tokiko Giza Garapeneko paradigma marko bezala izanik, ikerketa parte-hartzaile bat garatu zen. Ikerketa horretatik, esperientzia erreale desberdinetan adibidez adierazi ziren hausnarketa teoriko-praktiko multzo bat sortu zen. Bai ikerketaren garapenean bertan bildutako informazioetan, bai ikerketa osatzen duten praktika egokien fitxetan identifikatutako mehatxu eta aukeretan lortutako konklusioek, balio handiko informazioa eskaini ziguten orientazioen inguruan, merkataritza eta kontsumo eredu bat justua eta eraldatzailea bezala identifikatu ahal izateko.

Bigarren dokumentua *Eraldabide* da, merkataritza eta kontsumo ekimen justuak eta eraldatzaileak identifikatzeko eta autoebaluatzeke tresna, tokiko eta global mailan. Dokumentu honek autoebaluziorako

hobekuntza proposamen bat eskaintzen du, errazak eta testuinguru desberdinetan eta ekimen praktikoetan aplikagarriak. Adierazle multzo bat garatzen da merkataritza eta kontsumo eredu justu eta eraldatzaileak identifikatzeko, sustatzeko eta bultzatzeko helburuarekin, osatzen dituzten eragileen autoebaluzioaren premisatik. Azken helburua giza gaitasun indibidualak eta kolektiboak sortzea da, tokiko ingurune definitu batean.

Azkenik, *Fem-Check* deituriko hirugarren dokumentu honek, 2015 urtean burututako prozesuan zeharkakoak bezala adierazitako 2 lehentasunei erantzuten dio. Alde batetik, ebaluzioa bere baitan prozesu bat bezala; beste aldetik, genero ikuspegiaren beharrezkoa den zeharkakotasuna, tokiko eta global mailan Merkataritza eta Kontsumo eredu eraldatzaileen proposamen baten eraikuntza prozesuan.


Ebaluzioan, genero zehartasuna, genero estereotipoak suposizio zientifiko bezala onartzea dela (modu natural batean) nabarmentzea garrantzitsua da, sexu eta genero terminoetan azterketa zehatzik egin gabe. Gizonen eta emakumeen artean berdintasuna dagoen horren fikzioan ere oinarritzen da (maskulinoa dena erreferente unibertsal bezala hartuz) edo, baita zalantzarria dena ere, gizonen eta emakumeen arteko ustezko ezberdintasunetan oinarritzen da (ezberdintasun biologikoak areagotuz edo sozial mailan eraikitako ezberdintasunak azpimarratuz-naturalizatuz). Horietan guztietan, androzentrismoaren eta patriarkatuaren inposaketaren tradizio luze bat aurkitzen dugu. (Capri le M. et al 2012)



GRAFIKOA: MERKATARITZA ETA KONTSUMO EREDU JUSTU ETA ERALDATZAILEEN ERAIKUNTZA PROZESUA, TOKIKO ETA GLOBAL MAILAN

Aurretik adierazitako guztia kontuan izanik, Ereduak ikerketari, baita *Eraldabide* autoebaluazioko tresnari ere, lagundu edo bera osatzen duen tresna bat garatzeko ideia sortu zen. Horretarako, Mugarik Gabe-rekin harremanetan jarri ginen, ikerketa desberdinetan bazkide eta genero gaietan berezitua, Emaús Gizarte Fundazioarekin batera tresna hau garatzeko, *Fem-Check* tresna. Lankidetzaren emaitza bezala, egiaztatzen da tresna hau aurkezten da, gure ekintzen eta jardueren jarraipena eta ebaluazioa errazteko asmoz, bereziki genero ikuspegitik. Lehen esan bezala, tresna honek Merkataritza eta Kontsumo eredu justu eta eraldatzaileak tokiko eta global mailan, eraikuntza prozesuaren zirkulua ixten du.

Azkenik, ez dugu ahaztu behar, prozesu honek guztiak, Emaús Gizarte Fundazioak eta bere aliatuen barne erronka bati erantzuten diola. Errealitatea, gizarte eraldatzeko erronka da, gizarte justizia giza eginkizun guztientzat nuklearra izan dadin ingurune baten alde, eta pertsona bakoitzak bere gaitasunak berdintasunean garatu ditzan eta modu inklusibo batean; ingurune jasangarri batean, ingurumenaren, giza eta kolektibo mailari dagokionez.



AURKIBIDEA

1.	SARRERA	8
2.	ADOS JAR GAITEZEN: EZINBESTEKOAK DIREN HAINBAT AURRETIKO	9
3.	CHECK LISTAREN ERABILERA METODOLOGIA	13
4.	FEM_CHECKRENTZAT BEHARREZKOA DEN AKONPAINAMENDUA EBALUAZIO PROZESUA EBALUAZIOAREN EDUKIA	15
5.	FEM _ CHECK	19
6.	TRESNAK IBILBIDEKO KOADERNOA: EBALUAZIO PROZESUAREN EBALUAZIO FITXA FEM _ CHECK	22
7.	BIBLIOGRAFIA	24

1. SA-RRERA

ONDOREN, FEM_CHEK TRESNA AURKEZTEN DIZUEGU, GIZARTE ERALDAKETAREN ALDE EGIN NAHI DUGUN ERAKUNDEETAN PRESENTE DAUDEN BI ERRONKETA LAGUNTZEN SAIATUKO GAREN TRESNA BAT: GURE TESTUINGURUETAN ERALDAKETAK SUSTATU ANALISI FEMINISTA BATETIK ETA HAUEK EBALUATU IKASKUNTZA ETENGABE BAT BULTZATUZ. EZ DA GUTXI HORI!



1

Egiaztatze tresna honek gure jardueren jarraipena eta ebaluazioa erraztea bilatzen du, zehazki genero ikuspegia deitzen den alde horretatik. Askotan instrumentalizatu edota indargabetu den arren, ongi erabiltzen bada, analisi feminista sustatzen lagundu gaitzakela ulertzen dugu, baita egiten dugun eta nola egiten dugun horretan aldaketa feministak sustatzen ere.

FEM_CHECK, nagusiki, egiaztatze zerrenda formatua duen tresna bat da (check list bezala gehiago ezagutua) eta erabilera eskuliburu bat, erraztu nahi dituelarik: kontuan hartu beharreko ikuspegiko hainbat elementu, prozesuan zehar eta konklusioen analisisan ahaztu behar ez diren analisi feminista gakoak eta tresnak bere baitan. Tresna hau jarduera konkretuetan (tailerrak, materialen

elaborazioa, etab.) eta prozesu zabalagoetan erabili ahal izango dugu, adibidez, proiektu bat gauzatzea diseinutik hasi eta amaiera arte edo antolakuntza planifikazioko prozesu bat, beti kasu bakoitzerako egokiak diren atalak hautatuz.

Jarraipenean baino ebaluazioan zentratu gara gehiago, prozesu zabalagoa eta konplexuagoa dela ulertuz. Aldi berean, tresna hau jarraipeneko prozesuetara egokitzen da generoaren ikuspegi batetik, planteatutako jardueraren, proiektuaren edo estrategiaren amaieran soilik egin ahal izango diren analisiak eliminatuz.

FEM_CHECKak hausnartzeko geldialdi bat egiten eta gure analisiak ardatzen lagunduko digu ikuspegi feminista batetik, baita gertatua aztertzeko eta ikaskuntza sortzeko pistak eman ere. Baina kontuan izan behar da, ebaluazio prozesu zabalagotara gehitzeko tresna bat gehiago dela, gure erakundeetan ebaluatzeko kultura bat eraikitzeko prozesuan, ekarpenak egiteko ebaluazio prozesuetan.

Dokumentu guztian zehar, ebaluazioa eta genero ikuspegia modu etengabe presentean egon behar duten elementuak bezala ikusiko dira, une jakin batean “kendu eta jarri” ezin direnak, gure antolakuntza praktiketan eta prozeduretan barneratzen joan behar diren elementuak bezala baizik. Bi elementuak amaierarik ez duten ikaskuntza etengabeko prozesuak dira, une oro erronka berriak planteatzen jarraitzen dutenak eta egiten dugun hori, baita nola egiten dugun ere, birpentsatzea eta berrikustea eskatzen digute. Hainbat feministek planteatzen duten bezala, ebaluazio feministak betaurreko moreak soinean jartzea inplikatu du, errealitatea begiratzen dugun modu sistematikoa aldatzeko, eta ez hori bakarrik, boligrafo eta eskularru moreak hartzea ere, erabaki hartzetan, proposamen berrietan eta finkatu beharko ditugun aldaketetan lanean hasteko garaian.

“Iraganaz ikasteko eta gure bizitzako eremu publiko eta pribatu guztietan printzipio feministek arautzeko etorkizun baten alde lan egiteko balentria izan behar dugu”
Bell Hooks (2017)

¹ Irudia hartu den orria: <http://www.todaslasmiradas.es/>

2. ADOS JAR GAITEZEN: EZINBESTE- KOAK DIREN HAINBAT AURRETIKO

Sarreran planteatzen genuen bezala, tresna honen elaboraziorako, gure ekintza eta prozesu guztien ebaluazioak duen garrantzitik abiatzen gara, eta nola ez, ebaluazio hau ikuspegi feminista batetik gauzatzea.

Gure testuinguruak hobetzean eta bizitza jasangarriago, justuago eta berdintasunaren bidean aldaketak sortzean intzidentzia egitea ez da posible pentsatzen dugu, berrikuspena modu jarraian eta generoari dagokionez ikuspegi eraldatzaile honetatik egiten ez badugu. Dokumentu honetan ebaluaziorako tresna bat proposatzen dugu generoaren analisisan garrantzia jarritz. Baina, bai ebaluazioa bai genero ikuspegia, gure erakundeen diskurtsoan eta praktikan barneratu behar diren bi praktika eta ikuspegi politiko bezala ulertzen ditugu.

Aldaketak posible egin ditzaketen bi kontzeptu hauen konbinazioan, ebaluazioa eta feminista, *Exploring feminist evaluation* (2002) testuan proposatutako kontzeptuak berriz hartzen ditugu, ebaluazio feminista euskarritzen duten elementu bezala:

1. Ebaluazio feministak ardatz nagusi bezala du, gizarte injustiziara bideratzen dituzten desberdinkeriak.

2. Generoan oinarritutako diskriminazioa edo desberdinkeria sistemikoa eta egiturazkoa da.

3. Ebaluazioa jarduera politiko bat da; Ebaluazioak lan egiten duen testuinguruak politizatuak daude; Eta ebaluatzaileek ebaluazioetara eramaten dituzten esperientzia pertsonalek, ikuspegiak eta ezaugarriak (eta hauekin elkarrekintza egiten dugu), jarrera politiko partikular batera eramaten dute. Ebaluazio feminista batek, ebaluatzaile batek bere burua aktibista bezala ikustera eramaten du.

4. Ezagutza, helburu zehatz edo inplizitu batentzat balio dezakeen baliabide indartsu bat da.

5. Ezagutza sortzen, euskarritzen eta partekatzen duten pertsonen eta pertsonentzat baliabide bat izan behar du. Ondorioz, ebaluazio edo ikerketa prozesuak eragin negatibo edo positibo esanguratsuak izan ditzake ebaluazioan / ikerketan nahastuta dauden pertsonengan. Ezagutzak eta baloreak gerta daitezke, kultura, gizarte eta denbora mailan. Ezagutza pertsonaren bitartez ere iragazten da.

6. Jakiteko hamaika modu daude; modu batzuk besteekiko lehentasuna dute.

Elementu hauek ebaluazio parte-hartzaile batean oinarrituz planteatzen ditugu, ebaluatu beharreko prozesuetan zuzenean edo zeharka inplikaturik dauden pertsonen eta kolektiboen ikuspegi ezberdinak barneratuz eta bereziki emakume, feminista eta LGTBIQ+² kolektiboen iritzia barneratuz. Ebaluazio mota honek, ebaluazio prozesu beraren ikaskuntza bat sortzea bilatzen du, bai informazioaren bilketa eta itzulketan, bai ebaluazio tekniken erabileraren bitartez, pertsona/talde parte-hartzaileen aldetik.

Kokatutako ezagutza batetik abiatuz, ebaluazio eredu desberdinak ere aintzat hartzen ditugu, erabilera egokiena mistoa izango delarik, horietako bakoitzak garrantzia

² Dokumentu guztian zehar, LGTBIQ+ kolektiboen inguruan hitz egingo dugu, lesbianak, gayak, trans, bisexualak, interseksionalak, queer eta (+) gehi, (eraikitzen gaudela jakiteak duen garrantzia kontuan hartuz) barneratuz.

desberdindua duten ikaskuntzak sortzen dituzte: autoebaluazioa (kolektibo beraren ahalduntzea), talde-ebaluazioa (ebaluatutako jardueran inplikaturak dauden edo ez dauden, aliatutako eragile ezberdinen ahalduntzea) eta kanpo-ebaluazioa (kanpoko ikuspegi bat eskuratzeko aukera, inplikaturak taldeak beti posible ez denean).

Edozein kasutan, gure prozesuen hobekuntzaren alde apustu bat inplikaturak duen eta modu etengabean ikaskuntzetan oinarrituz aldatetako eta eraldatetako konpromiso bat inplikaturak duen, prozesu politiko bat bezala ulertzen dugu ebaluazioa. Ekintza eta berrikuspen feministek gure eremu pertsonalean, antolakuntza eremuan eta gure testuinguruetan aldatetako sortu beharko dituzte.

Zentzu honetan, gure erakundeetan ebaluazio prozesuak hasteko garaian, ebaluazioa egiteko hurbilketak balioztatu beharko ditugu. Testu honetan, *Genero-erakunde eta ikuspegi-erakunde sentikorra den ebaluazio bat egiteko hurbilketa desberdinak, garapenerako giza eskubideetan oinarritua* (2014) testuan jasotako proposamenak, berriz ere esku artean hartzea planteatzen dizuegu. Proposatutako hurbilketetatik bi elementu nabarmenak ditugu, eta tresna honekin elementu horietaz ikasten jarraitu nahi dugu:

- *Ebaluazio parte hartzaile baten proposamenetan planteatzen gure bezala, stakeholders-entzuten (partaideak) orientatutako ebaluazio ikuspegiak, emakumeak ebaluazioaren eta analisiaren erdigunean kokatzea proposatzen digu, modu indibidual zein kolektiboan, baita beraien eskubideak urratzeko arrisku gehien duten kolektiboekin egiten duten gurutzaketa ere.*

- *Aldaketa kritikora edo paradigma eraldatzailean orientatutako ebaluazio ikuspegiak, ebaluatzen dugunean aldatetako eragileak ere gure onartzen dugun ebaluazio ereduak daudela planteatzen digute, era berean, ebaluazioak bere baitan, gizarte justizia handitzen lagundu dezake.*

Horrez gain, gehitzen den epaira orientatutako ebaluazio ikuspegi berriz hartzen dugu, agian hezkuntzako eta nazioarteko lankidetzako prozesuekin konektatutako erakundeetan gehien erabiltzen direnak izanik. Ikuspegi honetan Garapenerako Laguntzako Batzordearen irizpideen

erabilera barneratuko genuke (eraginkortasuna, eragilea, eragilea, genero eragilea, jasangarritasuna edo bideragarritasuna), baina genero analisi³ bat barneratuz eta beste zenbait irizpide zehatz gehituz (partaidetza kalitatea bezala, parekidetasuna, ahalduntzea, besteak beste).

Lehenengo orri hauetan bertan, ebaluazio feminista bat gauzatzeak duen konplexutasunaz hitz egiten digute, hainbat gako erreferentzia egiten dugu, baina kontziente gara oraindik sakontzen jarraitzeko eta gehitzen joateko elementu asko daudela, ikaskuntza etengabe logika honetan. Dokumentu honetan hainbat eragile aldatetako apustu egiten dugu, ikuspegi feminista batetik, indar gehiagorekin ardatzu nahi dugun, gabezia asko aurkitzen ditugula kontziente izanez.

Aurretiko hausnarketez gain, gure praktikek pertsonetan, erakundeetan eta mugitzen garen testuinguruetan aldatetako sortzen dituztela eta genero erlazioei dagokionez, jarduera neutralak ez direla existitzen ideiatik abiatzen gara. Hori horrela izanik, gizarte aldatetako gure erantzukizunak ahalmen eraldatzaile horren eta gure ekintzen orientazioaren aldeko apustu egiten du, emakumeen eta gizonen artean berdintasunaren aldeko eredu eta erlazioen eraikitzean ekarpenak egiten dituzten ekintzen, proiektuen eta prozesuen sustapeneran bidean.

GENERO IKUSPEGIAK⁴ EMAKUMEEN ETA GIZONEN LANAREN ETA BOTEREAREN BANAKETAN DAUDEN FAKTOREAK HARTZEN DITU KONTUAN. EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO FUNTZIOEN ETA ERLAZIOEN BERRIKUSPEN BAT DA GIZARTE GUZIAN, BOTERERA, ABERASTASUNERA ETA LANERA SARTZEAN DAGOEN OREKA GABEZIA KONTUAN HARTUZ. GARAPENAREN PROZESURA APLIKATUZ, GENERO AZTERKETAK, EMAKUME ETA GIZONEN PROZESUAK ETA POLITIKAK SORTZEN DITUZTEN ERAGIN EZBERDINAK NEURTZEN DITU.

EBALUAZIO ERALDATZAILE BATEK, GENERO TERMINOETAN⁵, ESTRATEGIA EDO PROIEKTU BATEK EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEAN EZARTZEN DIREN ERLAZIOETAN NOLA ERAGIN DUEN, KONTUAN HARTU BEHARREKO ELEMENTUAK ADIERAZTEN DITU.

Kontzeptu hauek, hamarkadetan zehar, ikuspegi eraldatzaile bat sustatzen lagundu digute, emakumeen giza eskubideen urratze sistematikoari dagokionez mundu guztian zehar, eta pribilegio maskulinoekin eta nagusi den sexismoarekin hausten duten berdintasunaren aldeko ereduak sortzen lagundu digute.

Azken urteetan, kontzeptu hauek eboluzionatuz joan dira ere, errealtatearen ikuspegi binarista (gizon/emakume) bat hausten saiatuz, maskulinitate eta feminitate eredu estanko bat funtsezko eginez, kontzeptu berriak sustatuz eta kolektibo berriak ikustera emanez, bereziki LGTBIQ+.

Horrela, gida honetan proposatzen dugun beste aurretiko bat, oraindik heteropatriarkala den testuinguru batean beharrezkoak direla uste ditugun kontzeptuak eta analisiak konbinatzea da; leku askotan oraindik ere, emakumeen opresioa konstante bat izaten jarraitzen du, kolektibo bezala (gizonen/emakumeen pribilegioak, emakumeen ahalduntze estrategiak, lanen banaketa sexuala, etab.), “egia objektiboak” zalantzan jartzen dituzten eta gurutzatzeak gure diskurtsoak konplexuago bihurtzen dituzten beste opresioekin eta kontzeptu berriekin barneratzea behartzen gaituzten proposamenekin.

FEM_CHECKaren ezinbestekoak diren aurretiko hauek amaitu aurretik, esan behar dugu, ebaluazio feminista burutzea ez da soilik egiten dugun hori berrikustea, nola egiten dugun berrikustea baizik, are gehiago proposatutako aldaketa kritikoari orientatuko ikuspegitik. Aurreikusitako ebaluazio prozesua nolakoa den aztertzea tokatzen zaigu: Nork eta nola erabakitzen duen ebaluazio prozesua, zertarako genero terminoetan, nork parte hartzen duen, duten formazio feminista, sustatzen den metodologia, zein kontzeptu aztertzen diren lehentasunez, zein diren baliabideak, nola kudeatzen diren botereak eta

emozioak prozesuan. Zehazki, zertarako ebaluatzen dugun nabarmentzen dugu, ez bakarrik ebaluazioko ikuspegi batetik abiatuz, inplikaturako erakundeen ikaskuntza bezala eta ahalduntzea bezala; bereziki, genero erlazioen eta prozesuaren gomendioen betetze konpromisoen eraldaketako terminoetan zer lortu nahi dugun horren ikuspegi bateratu bat izateko baizik.

EBALUAZIO FEMINISTA EZ DA...

- GALDESORTA BAT BETETZEA
- ZERRENDAK JASOTZEA SEXUAREN ARABERA BANATUAK
- TXOSTEN BAT EGITEA
- JARDUERA/PROZESUA NOLA JOAN DEN DESKRIBATU
- BALDINTZA BAT BETE
- ...

KONTUZ EBALUAZIOAREN ETA EMAKUMEEN EDO GENERO IKUSPEGIAREN INSTRUMENTALIZAZIOAREKIN!

Ildo honetatik bertatik, ikuspegi feminista honetatik garrantzia zein elementuri ematen ari garen bir-pentsatzea izango da gure erronka, bai prozesuetan bai ebaluatzen ditugun edukietan, historia mailan ikustera eman ez diren kontzeptu horiek guztiak kontuan hartuz: kolektiboa, parte-hartzailea eta demokratikoa dena, indibidualista eta kapitalistagoak diren logiken aurrean; zaintzen prozesuak emaitzen bolumenaren aurrean; kualitatiboa kuantitatiboaren aurrean; pribatua eta intimoa dena publikoaren aurrean; ahalduntzea pribilegioen aurrean; emozionala dena teknikoaren aurrean; errespetua kompetentziaren aurrean... beste askoren artean. Modu honetan, tresna erraz hau, politikoak diren eta praktiketan eta baloreetan aldaketak sortzearen aldeko apustu egin beharko duten, antolakuntza prozesuetarako ekarpen bat bezala dela gogoratuko dugu.

³ Ondorengo testua gomendatzen dugu “Evaluar con enfoque de género” (2004)

⁴ Generoan eta garapenean alfabetatzeko gida (2001)

⁵ Generoa garapenerako hezkuntzan (2009)

“Aurretiko ezinbestekoen” anbizio handiko kapitulu honetan ikusi dugun bezala, tresna hau hainbat ikuspegitan euskarritzen da:

- Feminista: Feminismoak bere korrante guztietan, hegemonikotik ezberdinak diren ikuspegi kritikoak eta errealitatearen ikuspenak eskaintzen dizkigu eta historian zehar “maskulinoa dena”, “zuria dena”, “mendebaldekoa dena” edota “heterosexuala dena” paradigma bezala izan duten errealitate eta fenomeno sozialak dekonstruitzen, desikatzen, zalantzan jartzen eta berriz esan nahia jartzen laguntzen digu.⁶

- Gizarte eraldaketarako hezkuntza: “pentsamendu kritikoaren sortzailea eta pertsona kontzienteak, ahaldunduak eta arduratsuak sustatzen dituen, gizarteari, bizitza berari eta bizi diren inguruneari dagokionez, hiritartasun bat konfiguratzuz, bizi den errealitatea eraldatzeko bidean”.⁷

- Interseksionala: “identitateen konbinazioaren ondorioz ematen diren diskriminazio eta desabantaila mota ezberdinak adieraztea. Arrazismoa, patriarkatuak, klaseko opresioak eta beste diskriminazioko sistema batzuk, emakumeei dagozkion posizioak egituratzen dituzten desberdinkeriak sortzen dituzten moduak lantzea bilatzen du. Testuinguru historikoak, sozialak eta politikoak kontuan hartzen ditu eta identitate ezberdinen bateratzeak ateratako norbanakoaren esperientzia bakarrak onartzea”, helburu bezala duena.⁸

- Eta giza eskubideetan oinarritua: “biztanleriaren giza eskubideen gozate eraginkorra sustatzea, errespetatzea eta bermatzea bilatzen du, talde ahulenei arreta berezi bat emanez. Garapeneko arazoan erdigunean dauden desberdinkerien analisiaren bitartez, praktika diskriminatzaileak zuzentzen eta garapenari dagokionez aurrerapena oztopatzen duen boterearen banaketa bidegabekoa eraldatzen saiatzen da”.⁹

⁶ Flores en el asfalto. (2017)

⁷ [H]ABIAN (2017)

⁸ Interseksionalitatea: generoko justizia eta justizia ekonomikoarentzat tresna bat (2004)

⁹ Hurbilketa desberdinak, generoarekiko eta garapenerako giza eskubideetan oinarritutako ikuspegiarekiko sentikorra den ebaluazio bat burutzeko (2014)

3. FEM_ CHECKAREN ERABILERA METODO- LOGIA

Tresna hau sargai txiki bat dela kontuan izanik eta ebaluazioko ohiko elementuak (egiaztatzea, ongi/gaizki/erdipurdi, analisi taulak...) hartzen jarraitzen duela kontuan izanik, ez dugu espektatiba faltsuak sortu nahi eta aurretiko ikuspegiaren, prozesu guztian zaintzaren eta analisi feministaren garrantzia nabarmendu nahi ditugu, alderdi guztietan, baina bereziki, konklusio eta gomendioetan.

FEM_CHECK guri laguntzeko tresna bat da, baina nola eta zertarako erabiltzen dugun jakin behar dugu.

Hau guztia esan ondoren, FEM_CHECK betetzeko jarraitu beharreko urratsak hauek lirateke:

1. *Tresnaren ikuspegi politikoaren eta teorikoaren berrikuspena eta berrespena*
2. *FEM_CHECKren akonpainamendu puntua irakurtzea eta hausnartzea*
3. *Ebaluazio prozesuaren definizioa: ibilbide koaderno (1 tresna)*
4. *FEM_CHECK betetzea (2 tresna)*
5. *Emaitzen analisiaren aurretiko laguntza kapitulua berriz irakurtzea*
6. *FEM_CHECKaren azken atala burutzea*

Dokumentu guztian zehar, tresna hau aplikatu dezakegun ekintza eta une ezberdinez hitz egiten dugu, FEM_CHECK tresna ondoren adierazten diren uneetara egokitu beharko dugula ulertuz:

- Ebaluatzeko prozesua aurkitzen den fasea: diseinukoa, prozesukoa, emaitza edo inpaktukoa. Kasu horietan guztietan ezinbestekoa da analisia ebaluazio beraren genero ikuspegitik hartzea: arrazoiak, helburuak eta diseinua.
- Ebaluatu beharreko prozesu/ekintza mota: puntualagoa den ekintza batetik, epe luzearako proiektu bat edo prozesu/estrategia bat.

Tresna, proiektu batean elaborazio bateko fase posibleak jarraituz diseinatua dago (identifikazioa, diseinua, gauzatzea, emaitzak eta eraginak), baina logika hau antolakuntza prozesuetan ere erabil dezakegu (adibidez, langile hautaketako prozesu bat edo erakundearen estrategia berri baten eraikuntza eta abian jartzea), baita ekintza puntualetan ere, argitalpen baten elaborazioa edo formazio tailerren garapena bezala. Horrez gain, erabilgarria izan daiteke ere, bai genero desberdinkerien salaketa edota beste mota bateko proposamen feministak lantzen dituzten proiektu zehatzetarako, bai desberdinkeria hauek zeharkako moduan lantzen dituzten proiektuetarako.

4.

FEM_CHECKAREN TANTZAT BEHARREZKOA DEN AKONPAINAMENDUA

EBALUAZIO PROZESUA

Gure FEM_CHECKaren lehenengo parte bezala eta prozesuak aurretik planteatutako ikuspegi mantendu dezan, ebaluazio prozesu beraren genero analisiaren gaineko hainbat galdera barneratu ditugu, tresna honek helburuak betetzen dituen prozesu batean kokatzen den jakiteko.


Hori horrela izanik, ondoren adierazten diren azalpenekin erlazionatutako galderak barneratu ditugu:

- **Ebaluazio arrazoiak** ikuspegi feminista batetik, dituen helburuak argitzeko denbora izateko eta baldintza soil bat ez izateko. Ildo honetatik, garrantzitsua da aztertzea ere, nork duen ebaluatzeko erabaki hau hartzeko gaitasuna, genero ikuspegi batetik. Ez dugu ahaztu behar, prozesu hauetan ere erresistentziak edota gatazkak sortzen direla, feminista ikuspegi batetik burutzen diren ebaluazio mota hauek, landu beharreko lehenetsuneko eta desberdinkeriako egoerak ikustera eman ditzaketelako.¹¹
- **Zein unetan** ebaluatuko den argitu. Genero analisia eta ebaluazioaren konpromisoa, parametro hauetatik, prozesuaren diseinutik presente eta hitzartuak egotea ezin hobea da. Edozein kasutan eta askotan

ibilbidean zehar ikasten goazela ulertuz, prozesu baten erdian edo amaieran genero analisi bat egiteak, ondorengo prozesuetan kontuan hartu beharreko ikaskuntzak eskaini diezaguke. Kontuan hartu beharko da, tresna hasteko une horretara egokitu beharko dugula.

- **Ebaluazio taldea.** Taldean emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatu bat dagoen balioztatu, baita pertsona hauek generoaren, feminismoaren eta ebaluazioaren gaineko formazio egokia duten ere. Informazio bilketa giltza da, baina ezinbestekoa da taldeak generoan eta feminismoan formazioa izatea, informazioaren analisi kritikoa egin eta hobekuntzarako gomendioak proposatu ahal izateko.
- **Prozedurei** dagokionez, espazioen izaera parte-hartzailea aztertuko beharko dugu, emakumeen, LGTBIQ+ pertsonen, feministen eta mota honetako erakundeen presentzia ziurtatuz. Era berean, metodologia kualitatiboak eta kuantitatiboak konbinatu behar dira eta pertsona guztien partaidetza berdinarekin alde egiten duten metodologia parte-hartzaileak sustatu. Horrez gain, sarrera ziurtatzeko mekanismoak balioztatuko dira (espazioak, denborak, baliabideak...).

- Ebaluazio prozesua definitzen amaitu aurretik, **zertarako** argitu beharko dugu. Gure helburua, egiten dugun horren izaera eraldatzailea aztertzea izan beharko luke genero ikuspegi batetik hobetu ahal izateko; gure prozesuen eragina balioztatzeko, desberdinkeriako erlazioen aldaketan; eta gizonengan, emakumeengan eta LGTBIQ+ pertsonetan eta hauen guztien erlazioetan duen eragina, baita testuinguruan ere. Hori guztia, gure praktiketan eta prozesuetan aldaketa sortzeko prest, gomendioak berriz hartzeko, analisi autokritikoak planteatzeko eta etorkizunerako hobekuntzak pentsatzeko prest.



¹² Generoko Glosarioa(2007)

¹³ Transgresio Feministaren hiztegia (2012)

¹⁴ Emakunderen Glosarioa

¹⁵ Generoko Glosarioa (2007)

EBALUAZIOAREN EDUKIA

FEM_CHECK lau bloketan dago planteatua: diseinua, prozesua, emaitzak eta eraginak. Horietan guztietan, galdera multzo bat barneratu dugu genero ikuspegi eraldatzaile baten sarrera aletzeko.

Atal honetan, teoria feministarentzat eta genero analisiarentzat funtsezkoak diren hainbat kontzeptu barneratzen ditugu, egiaztatze zerrendara egiteko erantzunean presente izan beharko ditugu eta gure analisisetan sakontzen lagunduko digute. Gida oso bat beharko genuke feminista ikuspegi batetik funtsezko kontzeptuak barneratzeko, baina hemen lehenengo bateria bat barneratzen dugu eta intereseko dokumentuetan, kontzeptuak zabalitzen dituzten beste argitalpen batzuen bibliografia erasten dugu.

- **Agentzia.** Emakumeen ahalduntzearen gaineko hausnarketan markoan erabili da nozio hau, emakumeak ikustera emateko, beren interes, desio eta beharren arabera aktibatzen diren subjektu bezala. Nahiz eta oraindik, merkatuaren, familiaren eta estatuaren funtzionamendutik eratorritako egiturazko ideologiak eta dinamikek mugak inposatu.¹²

- **Agenda feminista.** Agenda feministen lehenetsutako elementuak kontuan hartzearen inguruan ari gara, kokatuta gauden testuinguruetan. Hain zuzen ere, agenda ezberdinak aurkituko ditugu eta interes desberdinekin, baina lehenetsutako puntu horiek ezagutu beharko ditugu gure estrategiek kontuan hartzen dituzten jakiteko: sexu eta erreproduktzio eskubideak, partaidetza politikoa, indarkeria matxistak, zaintzak, eskubide ekonomikoak...

- **Androzentrismoa:** gizona, gizakiaren prototipoa edo eredu bezala eta bere ikuspuntua, gizadiaren ikuspegia bezala hartzea egiten duen sexismoaren manifestazioetako bat da. Sexismo modu honen arabera, gizona eta maskulinoa dena giza esperientziaren erdigunea bezala ulertuak dira; aldiz, emakumea eta femeninoa dena, "bestea" edo "espezifikoa eta partikularra dena" bezala ulertzen dira.¹³

- **Autonomia.** Autonomiarekin lotutako zenbait alderdi bereiz daitezke: Autonomia emozionala eta fisikoa: norberak bere buruaren balioa ikustea eta autoestimua-sentimendua da, baita gorputzarekin eta osasunarekin lotutako prozesu eta erabakiak kontrolatu

ahal izatea ere; Autonomia ekonomikoa: baliabide eta ondasun ekonomikoak eskuratu eta kontrolatu ahal izatea da; Autonomia politikoa: oinarritzko eskubide politikoak eskuratu eta benetan erabili ahal izatea da; barne hartzen du parte hartzeko eskubidea erakundeetan, erabakitzeko esparruetan, alderdi politikoetan, baita prozesu horietan eragiteko gaitasuna ere; Autonomia soziokulturala: kultura- eta informazio-baliabideak eskuratu eta kontrolatu ahal izatea da. Emakumeen ahalduntzea eta parte-hartze soziopolitikoaren estrategia beharrezkoak dira autonomia hori eta eskubide osoko hiritartasuna lortzeko.¹⁴

- **Aniztasuna.** Gauza desberdinen aldaerari, barietateari, ezberdintasunari, abundantziari dagokio. Gizadia osatzen duten taldeak eta gizarteak ezaugarritzen dituzten identitateen "originaltasunean" eta aniztasunean adierazten da. Gizarte terminoetan, erlijioen, orientazio/nahi sexualen, postura politikoaren, etnien, ohituren, tradizioen, kulturen, hizkuntzen arteko aldaera da eta hauen arteko koexistentzia.¹⁵

- **Lanen banaketa sexuala.** Tradizioz, munduko kultura eta eskualde guztietan emakumeei eta gizonei jarduera eta erantzukizun ezberdinak esleitu zaizkie, hierarkizazio eta gizarte, ekonomia, politika eta kultura balorazio desberdinak bat emanez. Lanaren banaketa honetan bertan, alde batetik, gizonak hornitzaileak kontsideratu dira, lan produktibo ordaindua eta sozial mailan onartua burutzen dutelako, etxetik kanpora. Beste alde batetik, emakumeei erreproduktzio lana esleitu zaie, amatasunaz gain, familiako pertsonen osasunaren zaintza lanak, eta etxe barruko ordena mantentzeko gauzatzen diren lanak bere ardurapean utziz, beraz, pribatuaren eremuaren ardura. Tradizioz emakumeari esleitutako jarduera hauek balorazio negatibo bat dute, bai sozial mailan bai ekonomia mailan, eta nola ez, espazio politiko publikoetan ez daude eta ikusezinak dira, emakumeen bizitzan inplikazioei dagokionez.¹⁶

- **Ahalduntzea.** Genero-ikuspegiaren kontzeptu nagusia. Emakumeen posizio sozial, ekonomiko eta politikoa indartzea hartzen du barne. Bere helburua sexuen arteko botere-harremanak gutxitu edo ezabatzea da. Garrantzitsua da botere terminoa "zerbaiterako botere" gisa erabiltzen dela azpimarratzea, -adibidez, gizarte-harreman batzuetan edo guztietan eragina, boterea eta buruzagitza izateko bakoitzaren gaitasun eta trebetasunak aintzat hartzea eta horren arabera aritzea-, eta ez beste pertsonengan izan dezakegun boterearen arabera.¹⁷

- **Interes estrategikoak**, posizioan bideratuak, hau da, emakumeen eta gizonen ekitatearen bilaketarekin erlazioatuak. Norberaren eta kolektiboaren garapenerako, baliabideak, onurak eta aukerak eskuratzea eta kontrolatzea definitzen duten, egiturazko baldintzei dagozkionak. Hauek lortzeak, generoko rol tradizionalen eraldaketa inplikatzeko du.¹⁸

- **Behar praktikoak**: baldintzan bideratuak, hau da, asetasun ezeko eta material gabeziako egoerekin erlazioatuak. Ura, etxebizitza, osasuna, diru-sarrerak... bezalako arlo espezifikoekin erlazioatuak. Tradizioko genero rola eraldatuko gabe ase daitezke.¹⁹

- **Praktika generizanteak**: Generoko praktika kontziente bezala ulertzen ditugu, testuinguru batean emakume edo gizon bezala izateak eramaten dituen espektatibak, mugak eta aukerak nola ikusten diren horretatik sortzen diren praktikak. Pertsona bakoitzak generoa egiteko praktika multzo bat dugu gure esku. Kultura bakoitzak dituen jardueren, portaeren, hitz egindako edo gorputzeko mezuen espektro bat dira eta maskulinoa den horri eta femeninoa den horri dagokion estereotipo moduan oso estuki elkartuak daude. Praktika generizante kontzienteek, hausnarketaren bitartez portaeren nahitasuna inprimatu ahal izatea inplikatzeko dute, erlazio edo egoera batean indarrean dauden agindu, espektatiba eta genero estereotipoak gure alde baloratzeko eta erabiltzeko. Hauen aurrean, era berean, praktika inkontzienteak kontuan hartu beharko lirake, hauen bitartez estatus quo binarista desberdina errepikatzen delarik, generoaren posizionamendu eta manipulazioari dagokion maniobra margena kontuan izan gabe.²⁰

- **Baliabideak**: Baliabideak bitartekoak eta ondasunak dira, eta bertan sartzen dira bitarteko eta ondasun ekonomikoak (familiako diru-sarrerak), produktiboak (lurra, ondasunak, tresnak, lana, kreditua), politikoak (liderra izateko, informatzeko eta antolatze gaitasunak) eta denborazkoak. Baliabideen barruan, genero erlazioekin konektatutako hiru gako nabarmentzen ditugu: Eskuragarritasuna: Emakumeek baliabide bat eskuratu ahal izateak esan nahi du baliabide jakin bat (materiala, finantzarioa, gizatiarra, soziala, politikoa, eta abar) erabili dezaketela eta onura atera diezaioketela; Kontrola: Emakumeek baliabide bat kontrolatu ahal izateak esan nahi du, eskuratzeaz gain, baliabide horren erabilerari buruzko erabakiak ere har ditzaketela. Adibidez, lur-baliabidea kontrolatu ahal izateak esan nahi du emakumeek eskuratu dezaketela (erabili dezaketela),

eta, horrez gain, jabe ere izan daitezkeela (legezko jabeak), eta lurraren erabilerari, salmentari eta errentari buruzko erabakiak har ditzaketela; Onurak: Baliabide bat erabiltzeagatik lortutako ordainsari ekonomikoak, sozialak, politikoak eta psikologikoak dira, eta erabili daitezke behar praktikoak (elikadura, etxebizitza) edo interes estrategikoak (hezkuntza eta gaikuntza, botere politikoa) asetzeko.²¹

- **Genero rola**: genero bakoitzarentzat gizarteak egokiak edo desegokiak bezala ezartzen dituen portaera, jarrera eta balore multzoa. Hauek pertsonen irakaskuntza bezala transmititzen dira, beren generoaren arabera, onartzeko eta bereak egiteko.²² Emakumeen rol hirukoitzaz hitz egitean, rol produktiboari, erreproduktiboari eta komunitarioari egiten zaio erreferentzia.

- **Sexismoa**: sexu maskulinoa femeninoaren gainetik dagoenaren sinesmena, emakume guztien dominazio, diskriminazio edota opresio praktikak egiteko sinesmena. Sinesmen hau ez da beti esplizitua, hizkuntzan, irudikapen mediatikoetan, estereotipoetan, erlijio sinesmenetan, amatasunaren gaineko sinesmenetan, etab. adierazten diren sinesmen, praktika, jardura, balore, portaera, etab. ugariekin mantentzen eta euskarritzen da, dominazio hori gure gizarteetan onartua bihurtuz. Sexismoa emakume ezberdinek modu desberdinean bizi modu beren gizarte posizioa, etnia edo arraza, aniztasun funtzionala, sexu orientazioa, nazionalitatea, kultura edo erlijioa, adinaren, etab. arabera, ondorioz, sexismoa sustraitik errotzea oso zaila bihurtzen da.²³

¹⁶ Genero ikuspegia transbersalizatzeko AECIDen Gida (2015)

¹⁷ Emakunderen Glosarioa

¹⁸ Generoan eta garapenean alfabetatzeko gida (2001)

¹⁹ Ibidem

²⁰ El trabajo en equipo no patriarcal: herramienta de cambio hacia organizaciones con una apuesta feminista de transformación social (2013)

5. FEM_CHECK

EBALUAZIO PROZESUA

- Genero ikuspegi batetik burutzen den ebaluazioa, prozesuaren diseinutik planteatzen al da? Beranduago? Zergatik?
- Ebaluazio taldean partaidetza desberdindu bat al dago generoari dagokionez?
- Ebaluatzen dutenek, formazio egokia al dute genero eta ebaluazioari dagokionez?
- Genero erlazioak kontuan hartu al dira ebaluazio taldean bertan? (botere erlazioak, erabaki hartzeak, taldean lan egitea, gatazken eta emozioen kudeaketa)
- Ebaluazio parte-hartzaile bat sustatzen al da?
- Ebaluazio prozesuan emakume, feminista eta LGTBIQ+ kolektiboek kontsultatuko al zaie?
- Proposatutako metodologiek, metodologia kualitatiboak eta kuantitatiboak konbinatzen al dituzte?
- Emaizten eta gomendioak betetzearen hedapen konpromiso bat al dago?
- Beharrezkoak diren baliabideak bideratzen al dira ebaluazioa garatzeko? (denbora, aurrekontua, baliabide metodologikoak, hezkuntza baliabideak, langileak...)
- Ebaluazioan intersektional ikuspegia barneratzen al da?
- Ebaluazioak aurreikusten al du konklusioen eta gomendioen garapena genero ikuspegi batetik?

ZER EBALUATUKO DUGUN

1. JARDUERA/PROIEKTUA/ PROZESUAREN DISEINUA

- Jarduera hau bultzatzeko erabakia modu bakar batetik abiatzen al da edo zehazki kontuan hartzen ditu genero desberdinkeriak eta sexismoa?
- Jarduera hau burutzeko erabakiak kontuan hartzen al ditu generoko interes ezberdinak?
- Lanen banaketa sexuala kontuan hartzen al da proiektuaren diseinuan?
- Emakumeen eta LGTBIQ+ pertsonen giza eskubideen urratze espezifikoak kontuan hartzen al da proiektuaren diseinuan?
- Gizonak, emakumeak eta LGTBIQ+ pertsonak berdin parte hartzen al dute erabaki honetan eta bere diseinuan?
- Prozesu hau kokatzen duten genero desberdinkeriak balioztatzen dituen aurretiko diagnostiko bat egiten al da?
- Existitzen diren genero erlazioen emaitza diren, emakumeen, gizonen eta LGTBIQ+ pertsonen arazo espezifikoak daudela aintzat hartzen al dira?
- Genero erlazioetan eragina duten faktore ekonomikoak, politikoak, legezkoak eta kulturalak kontuan hartu al dira?
- Emakumeen, gizonen eta LGTBIQ+ pertsonen botere gradu desberdina balioztatzen al da erabaki hartzean?
- Emakumeen, gizonen eta LGTBIQ+ pertsonen rol ezberdinak –erreproduktiboa, produktiboa eta komunitarioa – kontuan hartzen al dira? Eta zalantzan jartzen al dira?
- Beren partaidetza ekitatiboa sustatzen al da espazio publiko eta pribatuetan?
- Emakumeen ahalduntzea sustatzen al da? Emakumeen gaitasunen garapenaren alde apustu egiten al da beren bizitzan ardura izateko eta arazoak konpontzeko modu kolektiboan ekiteko?
- Emakumeen aldetik, norbere gorputzaren kontrola sustatzen al da, baita errespetua ere gizonen aldetik?
- Esku-hartzeak generoaren interes estrategikoei erantzuten al die?
- Gizonen eta emakumeen denboraren erabilera ezberdinak kontuan hartzen al dira?
- Emakumeek, gizonen eta LGTBIQ+ pertsonen egiten duten baliabide ekonomiko, politiko eta kulturalen eskuritze desberdina kontuan hartzen al da? Eta baliabide horiekiko kontrol desberdina?
- Genero desberdinkeriako erlazioa beste modu bateko desberdinkeriekin, etniara, sexualitatara, funtzio-

²¹ Emakunderen glosarioa

²² Genero ikuspegia transbertsalizatzeko AECIDen Gida (2015)

²³ Transgresio Feministaren hiztegia (2012)

aniztasunera, adinera, nazionalitatera, etab. lotutako desberdinkeriekin, atenditzen al dira?

- Jarduerak, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko helburu/ estrategia zehatzak edo agenda feministaren elementu espezifikokoak al ditu?
- Proposatutako helburuen eta hauek praktikara eraman behar diren moduaren artean koherentzia bat al dago?
- Prozesuaren diseinuan baliabide espezifikokoak al daude genero berdintasunaren aldeko ekintzak ezartzeko? (pertsonak, aurrekontua, denbora...)
- Genero ikuspegia barneratzen duen jarraipen eta ebaluazio sistema bat diseinatzen al da? (adierazleak, emaitzak, oinarritzko lerroak...)
- Prozesuaren diseinuan genero ikuspegiaren formazioa duten pertsonak kontuan izan al dira? (talde bertakoak edo kanpokoak)

2. PROZESUA

- Genero desberdinkeriaren aurkako borroka paper protagonista bat al du bultzatutako prozesuan? Ardatz nagusi bezala?
- Jarduera hauek garatzeko baliabideak al daude? (pertsonak, aurrekontua, denbora...)
- Prozesuak agenda feministaren proposamenak barneratzen al ditu? Emakumeen giza eskubideak, ekonomia feminista, zaintzen kudeaketa, lanen banaketa sexuala, gorputzak eta sexualitateak...
- Genero erlazioak zeharkako moduan agertzen al dira prozesu guztian?
- Genero erlazioek neurri zehatzik al dute prozesuan? Ekintza positiboak definitzen al dira?
- Emakumeak, gizonak eta LGTBIQ+ pertsonak baldintza berdinetan egon al dira inplikaturako prozesu guztian eta bere jardueretan? (taldeak, hizlariak, adituak...)
- Pertsona eta kolektibo guztiak modu berdinean sartzeko eta parte hartzeko mekanismoak sortu al dira?
- Prozesuan emakumeen kolektiboek, feministek, parte hartu al dute zehazki?
- Prozesuan LGTBIQ+ kolektiboek parte hartu al dute zehazki?
- Genero desberdinkeriak eta berdintasunaren aldeko eredu alternatiboen sorrera, prozesuaren estrategietan eta edukietan agertzen al dira?
- Prozesuan metodologia parte-hartzaileak eta kolaboraziozkoak sortu al dira?
- Genero desberdinkeriak hautematen al dira erantzukizunen eta jardueren banaketan, prozesuaren garapenean zehar? Bai prozesuaren talde arduradunaren aldetik, bai sustatutako jardueretan parte hartzen dutenen aldetik.

- Sexuaren arabera rol eta funtzioen esleipena hausteko ekintzak sustatzen al dira, bai prozesuaren talde bultzatzailean bai jardueretan parte hartzen duten pertsonetan?

- Prozesuko baliabideak eta onurak eskuratzeko aukera berdina al dago emakumeentzat eta gizonentzat?
- Erabilitako materialek genero ikuspegia barneratzen al dute (edukiak, irudiak eta hizkuntza)?
- Jardueren, materialen... hedapenak apustu egiten al du emakumeen kolektiboengana, feministak eta LGTBIQ+ kolektiboetara iristeko?
- Prozesuko arduradunek generoaren eta feminismoaren gaineko formazio espezifikoa al dute?
- Genero erlazioak kontuan hartu al dira, prozesua sustatzen duen taldean? Eta berdintasunaren aldeko erlazioak sustatzeko mekanismoak? (Erabaki hartze horizontala, barne komunikazioa, lan-talde ereduak, emozioen eta gatazken kudeaketa)
- Jardueraren jarraipenean genero adierazleak barneratu al dira?
- Prozesuaren jarraipenaren arduradunak al daude genero ikuspegi batetik?
- Prozesuaren garapenean genero zailtasunak edota erresistentziak eman al dira?
- Genero erresistentziak modu argian eta eraikitzailean landu al dira?

ZEHAZKI MATERIALEI DAGOKIONEZ ²⁴

- *Emakumeak eta gizonak nola daude ordezkatuta? Zer ari dira egiten?*
- *Emakumeak alde batera utzi al dira testuan edo irudietan? Hor badaude, zer esaten da beraietaz?*
- *Irudi estereotipatuak al daude, adibidez, emakumeak haurrekin etxean, gizonak landan lanean?*
- *Irudiekin batera dagoen testua aztertu, familiaz hitz egiten denean emakumeak eta haurrak soilik ikusten dira? Komunitateaz hitz egiten denean, gizonen bilera edo bilkura baten irudia agertzen al da? Genero analisia barneratzen al da?*
- *Proposamen feministez hitz egiten al da?*
- *Emakumeen erresistentziako estrategiak barneratzen al dira?*
- *Berdintasunaren aldeko hizkuntza bat barneratzen al da?*
- *Landu beharreko gaien irudi intersektional bat eskaintzen al da?*
- *Zein inpresio transmititzen dira aztertutako materialen multzoarekin batera?*

- Nola sentituko zinateke irudi horietan zu agertuko bazina ordezkatur?
- Materialak Iparreko jendeari zuzendu ordez, Hegoko jendeari zuzenduta egongo balira, irudi eta mezu berdinak izango al lituzkete?
- Nolakoak izan dira genero erlazioak, materialen elaborazio prozesuan?

3. EMAITZAK

- Zehazki genero ikuspegia lantzen duten jarduerak eta estrategiak aurreikusia zegoen bezala gauzatu al dira?
- Genero desberdinkeriekin erlazioatutako espero ziren emaitzak lortu al dira?
- Planifikatutako baliabideak egotea lortu al da, genero berdintasunaren aldeko edo desberdinkerien aurkako jarduerak garatzeko? (pertsonek, aurrekontua, denbora...)
- Proiektuaren emaitzek emakumei, gizoni eta LGTBIQ+ pertsoni berdin eragin al diete?
- Definitutako ekintza positiboek espero ziren emaitzak lortu al dituzte?
- Partaidetza berdina lortu al da aurreikusitako jarduera guztietan?
- Prozesuaren jarduera guztietara emakumeen eta LGTBIQ+ pertsonen bertaratze berdina bat lortzeko, mekanismoak definitu al dira? (baliabideak, desplazamenduak, ordutegiak, zaintza zerbitzuak...)
- Definitutako jardueretan eta estrategietan emakumeen, gizonen eta LGTBIQ+ pertsonen sarrera eta partaidetza bermatu al da?
- Emakumeek, gizonen eta LGTBIQ+ pertsonen prozesutik berdina lortu al dituzte onurak?
- Prozesuan zehar sortutako materialek genero ikuspegia barnatzen al dute (edukiak, irudiak eta hizkuntza)?
- Baliabide publikoak eta pribatuak nola banatzen dira gizonen eta emakumeen artean?
- Prozesuaren taldean eta antolamendu bultzatzailean genero erlazioak hobetu al dira? (erabaki hartze horizontala, talde-lana, gatazken eta emozioen kudeaketa)

4. ERAGINAK

- Prozesua aldaketarik sortzen ari al da pertsonen/erakundearen kontzientzian, genero desberdinkeriei dagokionez?
- Prozesu honek emakumeen eta gizonen arteko berdintasuneko bir-banaketa bat sustatu al du, baliabide bat lortzeko eta kontrolatzeko (denborak, baliabide ekonomikoak, partaidetza politikoa, ezagutzak...)?
- Prozesuak aldaketaren bat sortu al du edo aldaketa bat

- izateko lagundu al du testuinguruko politika publikoetan eta honek berdintasunarekin duen erlazioan?
- Berdintasunaren aurrerapenei dagozkion lortutako aldaketak etorkizunean mantenduko al dira?
- Prozesuaren eraginek biztanlerian kontuan hartzen al dituzte aldaketak genero erlazioetan?
- Prozesuaren eraginek testuinguruan (politikak, baloreak...) kontuan hartzen al dituzte aldaketak genero erlazioetan?
- Prozesuaren eraginek erakundeetan bertan, genero erlazioetan aldaketak sortu al dituzte? (beraien politiketan, kulturaren, egituraren eta jardueretan)
- Generoari dagokionez lortu diren aldaketak etorkizunean mantentzeko, mekanismoren edo proposamenen bat ezartzen al da?

²⁴ Euskadiko GGKE Koordinakundearen generoan alfabetatzeko gidatik egokitua (53 or.)

**2 TRESNA_
FEM_CHECK**

Taulan, aurreko kapituluaren definitutako *fem_check*aren galderak barneratuko ditugu, jarduera motaren eta aurkitzen den fasearen arabera.

**FEM _ CHECK
EGIAZTAPEN FEMINISTAREN GURE ZERRENDA²⁵**

	😊	☹️	😞
DISEINUA			
AZPI-TOTALA			
PROZESUA			
AZPI-TOTALA			
EMAITZAK			
AZPI-TOTALA			
ERAGINAK			
AZPI-TOTALA			
TOTALA OROKORRA			

²⁵ Kontuan har dezagun galdera guztiak prozesuan ez dutela pisu berdina eta batzuk ez dira errazak ongi/erdipurdi/gaizki batekin erantzuteko. Hausnarketarako orientazio galderak dira.

ETA ORAIN ZER?

Zein dira ebaluazioaren emaitza orokorrak?
 Emaidza gehienak zein izan dira ongi,
 erdipurdi edo gaizki?
 Zerk harritu zaituzte?
 Prozesuaren faseen arabera desberdintasunak
 somatzen al dituzue?
 Diseinua, prozesua, emaitzak eta eraginak.
 Erantzunak ebaluatzerako garaian desberdintasunak
 eman al dira? Eta hauen arrazoiak?
 Genero analisiarekin zerikusirik al du?
 Zein dira erantzun negatiboen arrazoiak?
 Hauek aldatzeko irtenbideak proposatu
 al dira prozesuan zehar?
 Aldatzeko proposamenak sortzeko garaiz al zaudete?
 FEM_CHECKetik zein konklusio ateratzen dituzue?
 Ebaluazio taldean adostasuna al dago hauen inguruan?
 Prozesu honetan zer ikasi dugu?
 Zein dira erakundearentzat eta bere prozesuarentzat
 zuzendutako gomendioak?
 Zein dira hurrengo urratsak? Komunikazioa, erabaki
 hartzea, aldaketan aplikazioa...

7. BIBLIO- GRAFIA

ONDOREN, ARGITALPEN HONETAN ZEHAR AIPATUTAKO DOKUMENTUEN INFORMAZIOA ZEHAZTEN DUGU, BAITA GURETZAT INTERESGARRIAK DIREN BESTE BATZUK ERE, EBALUAZIO FEMINISTAN SAKONTZEN JARRAITZEKO. GEHIENAK SAREAN ESKURAGARRI DAUDE FORMATU ELEKTRONIKOAN.

Cuestiones esenciales sobre Género (01 y 02). LE MONDE
 SELON LES FEMMES. Madril: ACSUR – Las Segovias,
 2006

Diccionario de la Transgresión Feminista. FACIO, Alda;
 DE MONTIS, Malena; ARDON, Patricia; ARCE, Mariela;
 MILLER, Valerie. JASS, 2012.

Diferentes aproximaciones para hacer una evaluación
 sensible al género y al enfoque basado en derechos
 humanos para el desarrollo. LIGERO, Juan Andrés;
 ESPINOSA FAJARDO, Julia; MORMENEO CORTES,
 Carmen; BUSTELO RUESTA, Carmen. Madril: SECIPI,
 2014.

El feminismo es para todo el mundo. HOOKS, Bell.
 Bartzelona: Traficantes de Sueños, 2017.

El trabajo en equipo no patriarcal: herramienta de cambio
 hacia organizaciones con una apuesta feminista de
 transformación social. Mugarik Gabe, 2013.

Exploring feminist evaluation: The ground from which we
 rise. SIELBECK-BOWEN, K.; BRISOLARA, S.; SIEGART,
 D.; Tischler, C., and WHITMORE, E. New Directions for
 Evaluation 96, 2002.

Evaluar con enfoque de género. GONZÁLEZ GÓMEZ,
 Lara y MURGUIALDAY MARTÍNEZ, Clara. Bilbao:
 Cuadernos Bakeaz, nº 66, 2004.

Género en la educación para el desarrollo: estrategias
 políticas y metodológicas. CABELLO, Inmaculada;

TOMAS, Sonia; PELLICER, Llum; RODRIGUEZ, Alicia; ARGIBAY, Miguel; ANTOLIN, Luisa. Bilbao: Hegoa, 2009.

Glosarioa Emakunde (Emakumearen Euskal Institutua), Eusko Jaurlaritza. Eskuragarri: <http://www.emakunde.euskadi.eus>

Glosario de Género. Coord. RAMIREZ SOLÓRZANO, Martha Alida. México D.F.: Instituto Nacional de las Mujeres, 2007.

Guía de la AECID para la transversalización del enfoque de género. Coord. ALVAREZ FERRERO, Beatriz. Madrid: AECID, 2015.

Guía para alfabetizarse en género y desarrollo. MURGUIALDAY, Clara; VAZQUEZ, Norma. Bilbao: Euskadiko GGKE Koordinakundea, 2001.

[H]ABIAN. Estrategia de educación para la transformación social. Vitoria-Gasteiz: Lankidetzako Euskal Agentzia, 2017.

Herramientas prácticas para evaluar incorporando la perspectiva de género y la igualdad de oportunidades a proyectos de empleo: Las Preguntas Guía del Proyecto MAGEEQ. PLATERO, Raquel. Cádiz: Seminario de igualdad de oportunidades e incorporación de la perspectiva de género a proyectos de empleo, 2005

Interseccionalidad: una herramienta para la justicia de género y la justicia económica. Derechos de las mujeres y cambio económico, nº 9, AWID, 2004.

La evaluación sensible al género: Una herramienta para mejorar la calidad de la ayuda. ESPINOSA FAJARDO, Julia. XIV Encuentro de Latinoamericanistas Españoles: Congreso internacional, Santiago de Compostela, 2010.

¿Preguntas sin respuesta? Como una piedra en el zapato. VAZQUEZ, Norma. Bilbao: Mugarik Gabe, 2002.

Sistema Evaluación del proceso para la incorporación de la perspectiva de género en las ONGD Vascas. EQUIPO DE GÉNERO DE LA COORDINADORA DE ONGD DE EUSKADI Y KALIDADEA. Bilbao: Euskadiko GGKE Koordinakundea, 2008.

Un paso más: Evaluación del impacto de género. MURGUIALDAY, Clara; VAZQUEZ, Norma y GONZALEZ, Lara. Bartzelona: Cooperació, 2008.

Voces y saberes feministas: hacia una agenda de cooperación emancipadora. DEL RIO, Amaia; DEMA MORENO, Sandra; PALACIOS GARCIA, Rafael. Bilbao: Hegoa, 2013.

Flores en el asfalto: causas e impactos de las violencias machistas en las vidas de mujeres víctimas y sobrevivientes. GUZMAN ORELLANA, Gloria; MENDIA AZKUE, Irantzu; VAZQUEZ, Norma; TARDAN, Bárbara; NAREDO, María; LAURA SEGATO, Rita; JUBETO, Yolanda; ALONSO DE LECIANA MEDIAVILLA, Miriam; DE LEON, Quimy; FUENTES KEMP, Marta Kerina. Bilbao: Mugarik Gabe, 2017.



FEM CHEĀK

EGIAZTATZE FEMINISTA
ZERRENDA BAT, ERABILERA
ESKULIBURUAREKIN